Bestelako Xedapenak

OGASUN ETA HERRI ADMINISTRAZIO SAILA

1303

EBAZPENA, 2009ko otsailaren 12koa, Funtzio Publikoaren zuzendariarena, Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiaren Administrazioarekiko Auzietako Salan jardundako 1586/08 eta 1602/08 prozedura arruntetan (98 Legea) alderdi bezala ager daitezen, interesdun izan daitezkeenei epea jartzen diena.

Ebazpen honen ondorioz argitara ematen da Funtzio Publikoaren zuzendariak 2009ko otsailaren 6 eta 10eko dataz Ebazpena eman duela non ondoren adierazten diren prozedurei dagozkien administrazio espedienteak Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiaren Administrazioarekiko Auzietako Salari bidal dakizkiola xedatu den:

a) Prozedura Arrunta, 98 Legea, 1586/08: Miren Josune Urrutia Alonso andereak, Estatu osorako gaikuntza duten Euskal Autonomia Erkidegoko Toki Administrazioko funtzionarioen eskalako idazkaritza azpieskalan, sarrerako kategorian, sartzeko hautaketa-prozesuak zuzenduko dituzten oinarri orokorrak eta oinarri espezifikoak onartzen dituen Ogasun eta Herri Administrazio sailburuaren 2008ko urriaren 30eko eta 31ko Aginduen aurka ezarritako administrazioarekiko auzi errekurtsoa.

b) Prozedura Arrunta, 98 Legea, 1602/08: Arabako Lurralde Historikoaren Toki Administrazioko Idazkarien, Kontu-hartzaileen eta Diruzainen Elkargo Ofizialak, Estatu osorako gaikuntza duten Euskal Autonomia Erkidegoko Toki Administrazioko funtzionarioen eskalan sartzeko hautaketa-prozesuak zuzenduko dituzten oinarri orokorrak onartzen dituen Ogasun eta Herri Administrazio sailburuaren 2008ko urriaren 30eko Aginduaren aurka ezarritako administrazioarekiko auzi errekurtsoa.

Prozedura hauek lehen esandako hautaketa-prozeduren deialdiari eragin diezaiokete.

Horregatik guztiagatik, eta Administrazioarekiko Auzietarako Jurisdikzioa arautzen duen Legeak, uztailaren 13ko 29/1998 Legeak emandako idazkeran, 49.1 artikuluan agindutakoarekin bat etorriz, honako hau

EBATZI DUT:

1.– Aipatutako espedienteetan interesdunak izan daitezkeenei bederatzi eguneko epea jartzea, Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzietako Salaren aurrean lehenago esandako

Otras Disposiciones

DEPARTAMENTO DE HACIENDA Y ADMINISTRACIÓN PÚBLICA

1303

RESOLUCIÓN de 12 de febrero de 2009, del Director de Función Pública, por la que se emplaza a los posibles interesados en los Procedimientos Ordinarios Ley 98 n.º 1586/08 y 1602/08 seguidos ante el Tribunal Superior de Justicia del País Vasco, Sala de lo Contencioso-Administrativo a fin de que puedan personarse como parte en el mismo.

En virtud de esta Resolución se hace público que el Director de Función Pública, con fecha de 6 y 10 de febrero de 2009 ha dictado Resolución por la que se dispone la remisión al Tribunal Superior de Justicia del País Vasco, Sala de lo Contencioso-Administrativo los expedientes administrativos relativos a los siguientes procedimientos:

a) Procedimiento Ordinario Ley 98 n.º 1586/08: recurso contencioso-administrativo interpuesto por Miren Josune Urrutia Alonso contra Ordenes de 30 y 31 de octubre de 2008 de la Consejera de Hacienda y Administración Pública, por la que se aprueban las bases generales y las bases específicas que han de regir el proceso selectivo de acceso a la subescala de Secretaría, categoría de entrada, de la escala de funcionarios de administración local con habilitación de carácter estatal, en la Comunidad Autónoma del País Vasco.

b) Procedimiento Ordinario Ley 98 n.º 1602/08: recurso contencioso-administrativo interpuesto por el Colegio Oficial de Secretarios e Interventores y Tesoreros de Administración Local del Territorio Histórico de Álava contra la Orden de 30 de octubre de 2008 de la Consejera de Hacienda y Administración Pública, por la que se aprueban las bases generales que han de regir los procesos selectivos de acceso de la escala de funcionarios de administración local con habilitación de carácter estatal, en la Comunidad Autónoma del País Vasco.

Estos procedimientos pueden afectar a la convocatoria de los citados procesos selectivos.

Por ello, de conformidad con lo preceptuado en el art. 49.1 de la Ley Reguladora de la Jurisdicción Contenciosa-Administrativa, redactado por la Ley 29/1998 de 13 de julio.

RESUELVO:

1.– Emplazar a los posibles interesados en los referidos expedientes para que puedan comparecer en el plazo de nueve días ante el Tribunal Superior de Justicia del País Vasco, Sala de lo Contencioso-Administrativo

prozeduretako alderdi bezala aurkezteko aukera izan dezaten.

2.– Honako hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitara dadila agintzea.

Vitoria-Gasteiz, 2009ko otsailaren 12a.

Funtzio Publikoaren zuzendaria,
FERNANDO TOÑA GUENAGA.

y personarse como parte en los procedimientos antes citados.

2.– Ordenar la publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

En Vitoria-Gasteiz, a 12 de febrero de 2009.

El Director de Función Pública,
FERNANDO TOÑA GUENAGA.